

FAMILIAREN BILAKAERA BIZITZAN ZEHAR

Familia, bi helduk (kasu gehienetan) edo batek (zenbaitetan) ezartzen du(t)en harremanean oinarritzen da, betiere kontutan hartuta, egun, familia eredu ezberdinak daudela (guraso bakarreko familiak, familia homoparentalak, tradizionalak, berreraikiak, etab.). Eredua edozein izanda ere, familia unitate bat da eta inguruan daudenak horrela onartzen dute.

Unitatea bi pertsonak osatzen dutenean, ezaugarritzen dituzten akordio batzuk ezartzen dituzte: sakonago ezagutzen dute elkar eta egonkorragoak diren konpromisoranzko pausuak ematen dituzte.

Ondorengo pausua, bat egite bat eratzea da etorkizunera begira, ofiziala izan daitekeena edo ez (ezkontza edo erregistratua edo erregistratu gabeko izatezko bikotea); elkarbizitza eta familia handitzeko aukerak aintzakotzat hartzen dira. Seme-alabak izaten diren kasuetan (jaiotza edo adopzioa), horrek aldaketa handia suposatzen du familia-bizitzan eta ama edo/eta aitaren rol berri bat eratzen da. Horrek, familia-funtzionamenduan aldaketak eragiten ditu, egoera berri bati egokitu beharra eragiten du, espazio fisiko eta emozional ezberdinen beharra sortzen da eta beharrian ekonomiko berriak agertzen dira. Era berean, familia zabalaren hurbilpena ere ematen da.

Jarraian, seme-alaben eskolaratzearekin, familiaren beharrianak aldatzen dira eta nerabazarora heltzean aldaketak ematen dira funtzionamenduan. Helduek, beraien seme-alaben banaketa emozionala bizitzen dute, nerabeen harreman sozialek garrantzia handiagoa hartzen dutelako.

Ondoren, seme-alabak independizatzen diren momentua heltzen da. Urteetan, familia dinamika zaintzan zentratu bada ere, oraingoan bestelako lehentasunak agertzen dira. Helduek elkarrekin bizi duten bizitza-epealdi berri bat da: bigarren ezkongai-aldia.

Erretiroa heltzean, aldaketa sozialak eta laboralak ematen dira. Familia-bizitzan momentu klabea da, denbora gehiago partekatzen delako eta denboraren antolaketaren inguruko erabakiak hartu behar direlako. Erretiroak aldaketa ekonomikoa ere suposatzen du, diru sarrerak gutxiagotzen direlako.

Familia batzuetan, amona-aitonek ilobak zaintzen dituzte. Estimatu sentimenduak azaleratzen dira eta elkarren arteko zaintza ematen da. Adin honetan, harreman sozialak familia eremura itzultzen dira. Aitona-amonak seme-alaben laguntza behar duten unea ere izan daiteke. Orain arte izandako babesleak, babestuak bilakatzen dira.

LABURPENA

Familia-harremanak, familiako kideek bizi dituzten epealdien araberako erritmo eta denbora aldaketak bizi ditu. Aurrera egin, aldatu eta egokitu egiten dira. Fase desberdinak gainditzen dira, baina fase horiek ez dira beti berdinak ezta

denbora tarte berdinekoak ere, fase horiek faktore askoren arabera baitaude: familia osatzen du(t)en pertsona edo pertsonen arabera, bizitza ereduaren arabera, izaeraren arabera,

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia